

ZERUA PIZTEKO LANEAN

Argi-kutsadura murrizteko urratsak egin dituzte

Miren Fernandez de Landa

"Emakumeek ahotsa altxatu behar dugu kontzejuetan"

Gazteak, elkar hartuta

Arabako gazte euskaltzaleek topaketa antolatu dute





EUSKARAK 365 EGUN

EUSKARAREN ASTEAK

AZAROAK 23, OSTEGUNA

EUSKARAK 365 EGUN
Kike Amonarrizen hitzaldia
Oihaneder Euskararen Etxea
Ur biltegia | 19:00
Egitasmoaren aurkezpena
Doako sarrera, aforoa bete arte

AZAROAK 25, LARUNBATA

KANTARI GASTEIZ KARAOKEA
Dendaraba | Arratsalde osoa
Hainbat zentrotako ikasleek eginda

AZAROAK 26, IGANDEA

KANTARI GASTEIZ KARAOKEA
Dendaraba | 9:00-19:00
Hainbat zentrotako ikasleek eginda

PIRRITX ETA PORROTX
Buesa Arena | 12:00, 17:30
Antolatzailea: Katxiporreta

PORTO

Harkaitz Cano eta Mursegoren emanaldia
Oihaneder Euskararen Etxea
Klaustroa | 19:00
Antolatzailea: Oihaneder Euskararen Etxea

AZAROAK 28, ASTEARTEA

E.T.S. MUSIKA TALDEAREN EMANALDIA

Oihaneder Euskararen Etxea
Betolaza aretoa | 11:00

JOSEBA TAPIA ETA BESAMOTZAK
Parral taberna | 20:30

AZAROAK 29, ASTEAZKENA

MINTZODROMOA

#gasteizenbaieuskarari
Oihaneder Euskararen Etxea
Ur biltegia | 10:00
Izen-ematea: info@baieuskarari.eus

GURE SOR LEKUAREN BILA

Dokumentala
Oihaneder Euskararen Etxea
Betolaza aretoa | 19:00

AZAROAK 30, OSTEGUNA

**GASTEIZKO EUSKARAREN
GINKANAREN FINALA**
Oihaneder Euskararen Etxea
Ur biltegia | 11:00
Gasteizko hainbat ikastetxek

XABIER SAN SEBASTIANEN KONTZERTUA

Oihaneder Euskararen Etxea
Atrioa | 19:30

ABENDUAK 1, OSTIRALA

STRIPTEASE ANTZEZLANA

Principal antzokia | 12:30, 20:30

SARI BANAKETA

Itzulpen sariak. Haur eta gazte literatura.
Oihaneder Euskararen Etxea
Ortuño aretoa | 12:00

ABENDUAK 2, LARUNBATA

SORGINA TXIRULINA

Guraso erdaldunentzako ipuin tailerra
Oihaneder Euskararen Etxea
Ur biltegia | 11:00

EUSKAL OLINPIADAK

Umeentzako jolasak
Oihaneder Euskararen Etxea
Ur biltegia | 17:00

EUSKARAK 365 EGUN KANDELEN MOSAIKOA

Andre Maria Zuriaren plaza | 19:00

KALEJIRA ANDRE MARIA ZURIAREN PLAZATIK

Oihaneder Euskararen Etxera

DESIREN ZUHAITZAREN INAUGURAZIOA

Oihaneder Euskararen Etxea
Klaustroa | 21:00 (amaiera)

ABENDUAK 3 IGANDEA

ZINEMA

Umeentzako film emanaldia
Florida Zinema aretoa | 12:00

SALBURUAN 365 EGUN EUSKARAZ

Txokolatada eta kale animazioa
Salburuko gizarte etxea | 18:00
Antolatzailea: Sarburu elkarte

DUDA IKUSKIZUNA

Oihaneder Euskararen Etxea
Ur biltegia | 19:30



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala



Alea

127

Azaleko irudia:
Saioa Fdz. de
Aranguiz



4



8



16



24

HARPIDETU ZAITEZ

ALEA astero etxean jaso nahi baduzu, harpidetu zaitez. 55 euroren truke, 44 ale jasoko dituzu urtean.

www.alea.eus/harpidetzak

- 4 Argi kutsadura murrizteko lehenengo pausoak.
- 8 Miren Fernandez de Landa: "Gazteak kontzejuetara erakarri behar ditugu".
- 12 Iritzia: Oihan Txabbarri eta Mikel Ayllon.

ARABAKO KUADRILLAK

- 14 Gasteiz: espetxe-politika aztertuko dute datorren astean.
- 16 Aiaraldea: kolokan daude industriako hainbat lanpostu.
- 17 Gorbeialdea: garraio zerbitzua eskatu dute Elosun.
- 18 Lautada: Zaldondo, indarkeriaren kontrako udalerrria.
- 19 Añana: W-tximeleta berreskuratzeko lanetan ari dira.
- 20 Mendialdea: eskola jantoki ereduak aztertuko dituzte.
- 21 Trebiñu: ezingo da zerga-bilketa Arabarekin egin.
- 22 Arabako Errioxa: Berberana aldizkariak 25 urte bete ditu.

HAMAIKA SALTSA

- 24 Arabako gazte euskaltzaleek topaketa antolatu dute.
- 26 ARABAKO ALEA, Hala Bedin ere.
- 27 Igor Muñoz: "Los Hijos de la Montaña".
- 28 Postontzia.
- 30 Agenda.



Argitaratzailea
Arabako Alea Komunikazio
Taldea S.L.

Zuzendaria
Aritz Martinez de Luna Urzelai

Erredakzioa
Anakoz Amenabar
Mirian Biteri
Estixu Ugarte
Itsaso Estarrona

Webgunearen ardura
Saioa Fdz. de Aranguiz

Komertziala
Erlantz Anda

Denbora pasak
Bagabiga

Inprenta
Bidaxoa inprentatzeko zentroa

Banaketa
Bidera zerbitzuak

EGOITZA NAGUSIA
Arabako Alea Komunikazio
Taldea S.L.
Eskola kalea, 10, 7. bulegoa,
01001, Vitoria-Gasteiz, Araba
Tel.: 945 71 60 09
info@alea.eus

Erredakzioa
erredakzioa@alea.eus

Harpidetzak
harpidetzak@alea.eus

Publizitatea
publizitatea@alea.eus
695 63 28 62

Lege Gordailua: VI-32-2015
ISSN: 2386-8961

Tirada: 2.100 ale

Asteko kolaboratzaileak: Oihan Txabbarri, Mikel Ayllon eta Esti Lanao.

ALEAK ez du bere gain hartzen IRITZIA sailean, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileak, adierazitako iritzien erantzukizunik.

Bultzatzaileak:



Laguntzaileak:



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava
www.araba.eus



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Zeru gardenak

Gaueko zeruaz gozatzeko aukerak gero eta urriagoak dira, argi kutsadura dela eta; Gasteizko enpresa bat aspaldi galdutako zerua berreskuratzeke lanean ari da, gehiegizko argiztapenak sor ditzakeen arazoei aurre eginez. **JUANMA GALLEGO** GASTEIZ

Dta Jainkoak esan zuen: 'Izan bedi argia'. Eta izan zen argia. Ikusi zuen Jainkoak argia ona zela eta bereizi egin zuen ilunpeetatik". Hor hasi zen Historia. Gero etorri ziren gerokoak: Adan eta Eva, sugea, sagarra... eta Jainkoaren lehen gezurtzua. "Ez jan jakituriaren zuhaitzetik, hil zaitezke eta". Sugea lagun, Evak jaramonik ez. Eta ez zen hil, noski. Hara Historiako lehen *zapla!* Evak jandako sagarrari esker, beraz, gizakiak paradisua galdu eta ezagutza esku-ratu zuen.

Suari esker argia nahieran sortzeko ahalmenak Jainkoaren kapritxoetatik askatzeko bidea ireki zuen. Hala, gauak luzatu ziren eta suaren argipean kontakizunak eta irakaspenak transmititzen hasi ziren, kobetan babesteko aukera zabaldu zen, eta basapiztiak uxatzeko moduak ere biderkatu ziren.

Zoragarria da argi artifiziala, baina, industrializazioaz geroztik, argiz mozkortu da gizakia. "Jendea-

Kaleko argiak hobetzeko lanean

Gasteizko San Prudentzio kalean kokatuta, kaleko argiteria hobetzeko lanean ari da Luminica Ambiental enpresa, Susana Malon astrofisikari zaragozarraren eskutik. Energia-aholkularitzan espezializatuta dago, eta, zehazki, herriei eta hiriei laguntza eskaintzen die, kontsumo elektrikoa murriztu eta zerua gutxiago kutsatzen laguntzeko. Halaber, kontzientziazio lana ere egiten du, eskolaz eskola Cosmium izeneko planetario mugikorra eramanez. Bibat arkeologia-museoan ikusgai egon berri da, Zientzia Astearen baitan.

ri kutsaduraz hitz egiten diozunean, berehala burura datozkio ibaietako isuriak, berotegi efektuko gasak edota zarata, esaterako; baina ia inori ez zaio bururatzen argia ere kutsadura mota bat dela", argitu du Luminica Ambiental enpresako zuzendari Susana Malonek. Gasteizen lan egiten duen astrofisikari honek gertutik ezagutzen ditu gehiegizko argiztapenak sortzen dituen arazoak. Eta horretan laguntzen aurkitu du ogibidea. "Gustatzen zaidan arloan lan egiten dut, eta, era berean, arazoaren inguruan kontzientziazioa sustatzeko aukera daukat". Arabako Astronomia Elkar-teko kide ere bada Malon.

Astronomoak gaiaren inguruko kezka gehien zabaltzen dutenak dira, baina argi kutsaduraren eragina zerua behatzeko jardunean ez ezik, bestelako arloetan ere eragiten du. Nabarmenena, agian, aurtengo Medikuntzako Nobel sariaren haritik ezagunagoak egin diren erritmo zirkadianoei dagokiona da. "Lurrean gauden bizidun guztiak 24 orduko

Argi kutsadurak hainbat arlotan eragin ditzake ondorioak.

JUANMA GALLEGO

erritmoari egokituta gaude; egunean zehar esnatuta gauden bezala, gauez lo egin behar dugu, atsedena hartzeko eta bizirik irauteko. Baina argiztapen artifiziala dela eta, gaua urritzen ari gara, eta horrek eragiten die erritmo zirkadianoei". Adituaren esanetan, eragin hori gizakiengan zein gainerako bizidunengan ere eragiten du.

Bereziki argi urdina da kezka sortzen duena. Espektrio elektromagnetikoan indar gehien duena da. "Kolore urdineko argia da gehien barreiatzen dena, gainerako koloreak baino askoz gehiago. Horrek esan nahi du argia gero eta zuriago izan, orduan eta gehiago barreiatuko dela, eta kutsadura handiagoa sortuko duela".

Horregatik, argiztapen jasangarria eraikitzeko, argi mota hau ekin beharra dago. Oraingo LED teknologiari esker, nahieran mola daiteke argiaren tenperatura, eta horrek abantaila nabarmena ekarri du. Bestetik, telefono adimenduetan eta tabletetan hainbat teknologia garatu dira gauez irakurri behar denean argi urdinaren kopurua gutxitzeko, argi urdinak gorputzeko melatoninaren sorreran arazoak sortu omen ditzakeelako. Hormona horren ekoizpena funtsezkoa da ondo lo egiteko.

Araudi propiorik ez

Estatu mailako araudi batek zehazten du arazoari aurre egiteko estrategia: efizientzia energetikoa arautzen duen 2008ko 18/90 Errege Dekretuak, hain zuzen. Baina, Nafarroan ez ezik, gurean ez dago garata. Bai, ordea, erkidego gehienetan. Katalunia, Balear Uharteak,



Susana Malon, astrofisikaria. | JUANMA GALLEGO

"Argi-kutsaduraren arazoari aurre egiteko, funtsezkoa da hemen ere araudi bat garatzea; herren gabilta"

"Zalduondon egindakoa eredugarria da; kutsadura maila errespetatzeaz gain, segurtasuna zaindu dute"

SUSANA MALON GIMENEZ
LUMINICA AMBIENTAL ENPRESAKO ZUZENDARIA

Extremadura, Kantabria, Andaluzia, Gaztela eta Leon, Kanariar Uharteak... horiek guztiek lege propioak dituzte. "Arazo honi aurre egiteko funtsezkoa da hemen ere araudi bat garatzea", argudiatu du Malonek. "Gainera, orain egoera onean gaude, gaur egun dagoen teknologiari egokitzeko aukera izango genukeelako". Adituak aipatu duenez, Estatu mailako araudiak ez ditu kontuan hartzen azken urteetan nagusitu den LED teknologia. "Oro har, ingurumenari dagokionean, Euskadi aitzindaria izan ohi da, baina arlo honetan herren gabilta".

Duela bost urte inguru Eusko Legebiltzarrerara gaiari buruz hitz egitera joan zela esan du astrofisikariak, eta duela hilabete inguru garapen jasangarria lantzen ari den batzordean ere parte hartu du; baina, antza, gaia ez da asko garatu.

Hortaz, egoitza Gasteizen izan arren, proiektu gehienak Arabatik kanpo egiten dituela esan du Malonek. Arabako kasu bakanetakoa Zalduondon egindakoa izan da. Bertan, argiztapen proiektua garatu du Luminica Ambiental enpresak. "Argiteria aldatu behar zuten. Zeukatena aztertu eta ikusi genuen karkasa berdinak erabiltzeko aukera baze-goela, LED plaka berriak jarrita". Halere, adituak nabarmendu du hori beti ezin daitekeela egin hain modu errazean, eta egoerak banan-banan aztertu behar direla. "Benetako astakeriak ikusi ditut, Araban bertan ere", gaineratu du.

"Deskarga elektrikoko argiteria kendu eta zuzenean LED luminariak jartzen dituzte askotan, ezer gehiago aldatu gabe". Horrek arazo asko sor ditzakeela ohartarazi du adituak.



**Santa Katalina
lorategian 'starlight'
eremua dago.**

PHOTO OK

"120-100 gramoko bonbilla kendu eta kilo bateko pisua duen bonbilla berria jartzen dute, kontuan hartu gabe pisu horrekin erraz erori daitekeela. Bestetik, tenperaturari dagokionean, kontuan hartu behar da LED luminariak asko berotzen direla, eta bero hori disipatu beharra dago. Luminaria instalatuta badago, hori infernu txikia sortzen da, eta argi hori larregi berotzen denean itzali egiten da".

Zalduondon jarri duten kolore tenperatura 3.000 kelvinekoa izan da. "Itsutzen ez duen argi beroa jarri dute bertan, oso efizientea. Zalduondon egindakoa praktika onen adibide da. Kutsadura mailak errespetatzeaz gain, kaleetan segurtasun maila bat ere zaindu beharra dago, eta estatu mailako araudi batek hala izan behar duela dio. Bestetik, A etiketa energetikoa lortu da". Zalduondoko faroletako goranzko fluxua hutsa dela azaldu du Malonek. Horrek esan nahi du farolaren goiko aldetik argirik ez dela isurtzen.

Gizateriaren eskubidea

Zeruaren kalitatea neurtzeko lau parametro erabiltzen direla zehaztu du adituak: gaueko zeru-hondoaren distira naturala, atmosferaren turbulenzia, atmosferaren gardentasuna eta hodeien estaldura. Toki batean balore horiek egokiak badira, Starlight Fundazioaren ziurtargiria lor daiteke.

Duela 30 urte inguru jaio zen Starlight ekimena, Kanariar Uhartetako astrofisika institutuan. Ordu-

La Palman 2007. urtean egindako adierazpenak zerua Gizateriaren eskubide gisa definitu zuen

Arabian 'starlight' eremu bat dago izarrak behatzeko, Santa Katalina lorategi botanikoan

danik, nazioarte mailan lan egiten duen fundazioa bilakatu da. 2007an egindako nazioarteko topaketa batean La Palmako adierazpena egin zuten. Zerua Gizateriaren eskubide gisa definitzen da bertan. Fundazioak gaiaren inguruko dibulgazioa egiten du, eta eremu bakoitzean zeruaren kalitatea nolakoa den ziurtatzen du.

Arabak badu halako eremu bat: Santa Katalinako lorategi botanikoa, Tresponden. "Izar-parkearen kategoria du. Kasu horretan, hiruzpalau gauez distira neurtzearekin nahikoa izan genuen. Kutsatuta dagoen eremua da, noski, Gasteiztik gertu dagoelako, baina kutsadura maila baxua du. Zientzia dibulgazioa egi-

teko nahikoa kalitate du bertako zeruak". Ziurtagiri garrantzitsuagoak lortzeko, egin beharreko lana asko zorrotzagoa da. "Hainbat urtetako eboluzioa aztertu behar da, urte bakoitzeko zenbait gau ateri dauden jakiteko. Neurketak urtearen sasoi ezberdinetan egin behar dira, gainera". Hori egiteko moduko tresneria du Malonen enpresak. Haren esanetan, estatuan ez dago tresneria hori duen enpresa pribaturik: Sky SQM fotometroa edota Santa Barbaran (Kalifornia, AEB) berariaz egindako kamera berezi bat, adibidez. "Halakoekin, neurtzeko prozesua automatizatzea lortzen dugu". Starlight proiektu bakoitza egiteko 6-12 hilabete behar dituela esan du Malonek.

Gaiaren inguruko kontzientziazioa indartzeko, mezua belaunaldi berrietan sustraitu beharra dago, ezinbestean. Norabide horretan, Luminica Ambiental-ek Cosmium planetario mugikorra kudeatzen du. Eskolaz eskola eramaten duten planetario txiki horri esker, gazteenek zeruaren edertasunaz gozatzeko aukera izaten dute. Planetarioa joan den asteburuan egon da ikusgai Bibat museoan, Zientzia Astearen barruan. Seguruen bertan bokazio berriak piztu dira. Evaren bidea jarraituz, zerura begira bai, baina ezagutza handitzeko irrikan.

EREDU ENERGETIKOA. NORA GOAZ?

Trantsizio energetiko baten premia

AZAROAK 29-30 ABENDUAK 1-2

ALDABE / EHU / ERREKALEOR



BERRAZTU!

MIREN FERNANDEZ DE LANDA RUIZ

GASTEIZKO KONTZEJUEEN ELKARTEKO LEHENDAKARIA. Gasteizko kontzejuetan emakumeen parte-hartzea sustatzeko lan handia egin du Fernandez de Landak; galdutako denbora berreskuratu behar dela dio. **ESTITXU UGARTE LZ. DE ARKAUTE** GASTEIZ

"Emakumeek ahotsa altxatu behar dugu kontzejuetan"

Kontzejuko batzarburuak eta kideak hautatzeko aukera izango dute 30.000 arabarrek, datorren azaroaren 26an. Bizilagunen batzarrek herrietako oinarriko zerbitzuak kudeatzen dituzte: ura, argia, kaleak, lorategiak... Kontzejuetan erabakitzen dira lehentasunezko obrak, eta herri-lurrak, bideak eta bertako ondare guztiak mantentzen dira. Erakunde hauetan emakumearen presentzia oso txikia da oraindik, eta ahalegin berezia egiten ari dira egoera zuzentzeko. Miren Fernandez de Landa (Arkauti, 1963) da Gasteizko Kontzejuen elkarteko presidentea eta Gasteizko Kontzejuen Emakumeen Sareko kidea. Emakumeen ikusezintasunari aurre egiteko ematen ari diren pausuak azaldu ditu.

Zergatik da inportantea emakumeek kontzejuen hauteskundeetan parte-hartzea?

Erabakiak hartzen diren eremu guztietan egon behar gara emakumeak, gure bizitzan eragin handia izango dutelako erabaki horiek. Emakumeek altxatu behar dugu

ahotsa, eta galdutako denbora berreskuratu. Gure perspektiba inportantea da. Nik, lehendakari bezala, ikusi dut emakumeekin osatuta dauden kontzejuak askoz dinamikoagoak direla, ez dute denbora galtzen, ez dira eztabaida antzuetan sartzen... Kontzejuetan dauden emakumeak orokorrean oso arduratsuak dira, badakite gizonen eskatzen zaien bikoitza eskatuko dietela. Gizonetan ziurtzat jotzen dena, emakumeak frogatu egin behar du.

"Historikoki emakumeak bizitza publikotik baztertuak izan gara, etxekotuak"

Zenbat emakume daude Gasteizko kontzejuetan eta administrazio-batzordeetan? 63 kontzeju daude Gasteizen, bederatzi emakume lehendakari ditugu eta beste 22k administrazio-batzordeetan parte hartzen dute. Oso gutxi da. Historikoki emakumeak bizitza

publikotik baztertuak izan gara, etxekotuak izan gara, bigarren planora baztertuak, etxeko-eremura. Eta hori kontzejuetan islatu da.

Zer zailtasunak dituzte emakumeek kontzejuetan parte hartzeko?

Batzuek diote nahi ez dugulako ez dugula parte hartzen, baina objektiboki badira traba asko bizitza publikoan eta politikoan emakumeen parte-hartzerako. Ikusten dut kontzejuetan lanean dauden emakumeek bateragarri egin behar dituztela zaintza lanak eta kontzejuko ardurak, eta gainera, aisialdirako esku-bidea ere izan behar dute. Gizonek ez dute presio hori.

Urteotan zer bilakaera izan du emakumeen presentziak organo horietan?

Beti anekdota bat kontatzen dut: Duela hamalau urte, kontzejuen elkartearen hasi nintzenean, kontzeju bateko lehendakari batek oso harro esan zidan: "Ez, ez gure kontzejura emakumeak ez datoz, soilik gizonak, eta familia bakoitzetik bat". Zorionez, gaur egun, kontzeju horren lehendakaria emakume bat da. Pixkanaka joan gara urratsak egiten.



Miren Fernandez de Landa Betoñun bizi da.

ESTITXU UGARTE

Erresistentzia asko egon dira?

Ez da erresistentzia aktiborik egon, baina ez da erraztu. Bukatzen ez den soka da: emakumeok ez genuen parte hartzen eta esaten ziguten ez genuela parte hartu nahi; "ez zaizu interesatzen" esaten zuten. Bestalde, kontuan hartu behar da, lehen,

"Emakumeok ez genuen batzarretan parte hartzen eta esaten ziguten ez genuela parte hartu nahi"

kontzejuetan, familia bakoitzetik batek parte hartzen zuela batzarretan, familia buruak, alegia gizonak. Garai horretan soilik alargunek parte hartzeko eskubidea zuten, semerik ez bazuten edo etxean beste gizon bat ez bazegoen, bestela gizonaren menpe zeuden.

Ezinbestekoa da gizonak atzera pausu bat egitea emakumeek aurrera pausu bat emateko?

Ez dakit atzera pausu bat egin behar duten, baina konprometitu behar dira emakumeen parte-hartzearekin, lagundu, bultzatu eta haien lana baloratu, ez auzitan jarri. Batzuetan atzera pausu bat egitea aurrera pausu bat ematea da.

Kontzejuen Foru Arauan diskriminazio positiborako neurriak aurreikusten dira?

Kontzejuak administrazio publikoak garen heinean neurri horiek guztiak kontuan hartu behar ditugu, baina foru arauan ez dago espezifikoki jasota. Ikusten ari gara beharrezkoa dela foru araua berrikustea etaosatzea, bere momentuan idatzi zutenean agian ez zirelako kontuan hartu hainbat gauza, eta arauetan bildu behar dira. Dena den, kontzejuetan oso zaila da halako neurriak ezartzea, batzuetan hamabost lagun daudelako eta beste batzuetan laurogei.

Patriarkatuaren isla dira antzinako usadioak eta ohiturak; inportantzia handia dute oraindik kontzejuetan?

"Usadioa eta ohitura" epaiketa batzuetan argudio bezala erabili izan dute ere, lurralde-foruak usadioetan eta ohituretan oinarrituta daude... Indar handia dute oraindik esparru anitzetan, baina erabaki matxista bat ezin da onartu usadioetan oinarri-

tuta. XVIII. mendeko kontzejuen ordenantzak eta arauak ohituretan oinarrituta daude. Gizonen inguruan soilik hitz egiten zuten, izan ere herritarra gizona zen, emakumea ez zuten aipatzen. Ordenantzan ez ziren existitzen emakumeak. Motxila hori eramaten dugu nekazaritza munduko emakumeok eta hiriko emakumeok, baina niri egun ezin didate esan kontzeju batean ohiturak debekatzen duela emakume batek parte-hartzea, horri ezin zaio eutsi.

"Gazteak kontzejuetara erakarri behar ditugu, txertatu; haien beharretara egokitu behar gara"

Nekazaritza eremua bereziki matxista al da?

Nik ez dute uste nekazaritza eremuko gizon bat hiriko gizon bat baino matxistagoa denik, herrian matxista dena hirian ere. Gertatzen dena da hirian jende gazte asko ari dela ideia matxistak alboratzeko borroka horretan, eta herrietan jende zaharra dago batik bat, beste pentsamolde batekin. Horregatik belaunaldien arteko erreleboa da koska; gazteek oso ikuspuntu aberatsa dute hainbat gairen inguruan, harremanak egiteko beste modu bat dute..., eta administrazio batzarretan gaudenok txertatu behar ditugu gazteak, haien beharretara egokitu. Herriko kontzejuak gazte batzarrak bezala direla erakutsi behar diegu, zuzeneko demokraziaren gune nagusiak.

1.

334 kontzeju daude Araban, eta 30.000 arabar dago deituta azaroaren 26an botoa ematera. Soilik 94 emakume dira Arabako kontzejuetan errejidore.

2.

Zer da kontzeju bat? Lurralde mailako tokiko erakunde bat da, nortasun juridiko propioa duena eta bere lurraldearen eremuan jarduteko gaitasun osoa duena. Kontzeju irekia edo kontzeju itxia izan daiteke. Itxietan administrazio batzarra da gobernu eta administrazio-organoa. Irekietan, berriz, bizilagunen asanblada da gobernu-organoa, eta administrazio-batzarra da administrazio-organoa.

3.

Nork bozkatu dezake? Hauteskunde-errolan dauden 18 urtetik gorako pertsona guztiek bozkatu dezakete.

4.

Nor aurkeztu daiteke? Hauteskunde-errolan dagoen edozein pertsona aurkeztu daiteke, betiere bere izenean.

5.

Nori bozkatu dakioke? Hautagairik badago, aurkeztu diren hautagaien artean bozkatu beharra dago nahitaez. Aldiz, hautagairik ez badago, hauteskunde-errolan dagoen edozein pertsonari bozkatu ahal zaio.

LEHEN HITZAK BALIO HANDIA DU

Euskaraz? bai, mesedez

Euskaraz? bai, mesedez

Euskaraz kontsumituz, Gasteizko euskararen mapa osatuko dugu

bai euskarari baieuskarari.eus Babeskoa

f t i s o o i

Lan eta bizia euskaraz

Agintaririk gabeko erakundeak



JENDARTEA, ESPETXE POLITIKAREN ALDAKETARAKO MOTORRA

LA SOCIEDAD,
MOTOR DE CAMBIO DE
LA POLÍTICA PENITENCIARIA

Azaroak 21 de noviembre
asteartea martes
19:00 - 21:00
VILLA-SUSO JAUREGIA
(Martin de Salinas aretoa)

KOMUNIKABIDEAK ETA ELKARBIZITZA ESKENATOKI BERRIAN MEDIOS DE COMUNICACIÓN Y CONVIVENCIA EN EL NUEVO ESCENARIO

Moderatzailea: Ion Telleria - Naiz-eko kazetaria
 • EDURNE PORTELA - Idazlea
 • LUIS R. AIZPEOLEA - El Pais-eko kazetaria
 • IÑAKI SOTO - Gara-ko zuzendaria
 • LAURA MINTEGI - Idazle eta UPV/EHUko irakaslea

Azaroak 22 de noviembre
asteazkena miércoles
19:00- 21:00
VILLA-SUSO JAUREGIA
(Martin de Salinas aretoa)

MOTXILADUN UMEAK: DOCUMENTALA ETA SOLASALDIA LOS NIÑOS DE LA MOCHILA: DOCUMENTAL Y DEBATE

Moderatzailea: Belén Arrondo - EH Bilduko legebiltzarkide ohia
eta, egun, irakaslea
 • KONTXI IBARRETA - Izarren amona
 • PERU DEL HOYO - Espetxean hil den Kepa del Hoyoren semea
 • MAITE DIAZ DE HEREDIA - Preso ohia, espetxean jaiotako
ume motxiladun baten ama

Azaroak 23 de noviembre
osteguna jueves
19:00-21:00
EUROPA Biltzar Jauregia
(Gasteiz aretoa)

BAKEAREN ARTISAUAK: GIZARTE ZIBILA GATAZKAREN KONPONBIDEAN ARTESANOS DE LA PAZ: LA SOCIEDAD CIVIL EN LA RESOLUCIÓN DEL CONFLICTO

Moderatzailea: Teresa Toda - Kazetari eta aktibista
Egin egunkariaren zuzendari ohia
 • AGUS HERNÁN - Foro Sozialeko koordinatzailea
 • ANAIZ FUNOSAS - Bake Bideaneko presidentea
 • FERNANDO ARMENDARIZ - Giza Eskubideen aldeko aktibista
eta arlo honen eta nazioarteko
gaien irakaslea
 • JOSEBA AZKARRAGA - Sareko bozeramailea



www.sare.eus

OIHAN TXABARRI
PUBLIZITATEAN LIZENTZIATUA



Amak uste bezain guapoa

Gogoan daukat behin txikitari, gurasoekin kaletik nindoala, amak esan zidala oso guapoa nintzela. Nik jada argi samar neukan ez nuela literalki hartu behar, amaren estimuaren seinaleztat besterik ez, baina badaezpada aitak berehala egin zion arrapostu: "Ez esan haurrari gezurrik gero, ez dio mesederik egingo eta!".

Aita erdi-txantxetan zebilen, baina zalantza daukat batzuetan ez ote diogun amari kasu handiegirik egiten. Ez ote dugun guapoegiak, onegiak

garenaren ustea, bizitzako hainbat eremutan inolako mesederik egiten ez digun uste ustela. Honen zantzuak ikusi nituen hurbileko lagun bat armairutik atera zitzaidan lehenengo

"Ohartu ginen agian ez ginela gure amek uste bezain guapoa"

aldian. "Baina Urlia, nola itxaron duzu hain luze kuadrillari kontatzeko? Lagun hain aurrerakoiki eta tolerantetarako izanda!". Kontua da kide homosexual bat izan arte (kide homosexual bat duzula *konturatu* arte, esan nahi baita) ez zaizula bururutzen zenbatzea *kuadrilla aurrerakoiki* eta *tolerante* batek zenbat tontokeri eta txantxa homofobo edo mingarri esan ditzakeen arratsalde bakar batean, ia nahi gabe. Benetan horrelakorik pentsatu gabe.

Ohartu ginen orduan agian ez ginela gure amek uste bezain guapoa. Lagun batek esan zidan beste lagun-talde batzuetan modu askoz desegokiagoan jokatu zutela. Ez nago ziur kontsolamendu gisa ondo funtzionatzen duen. Funtsean zera da, amak "tira, haurra agian ez da munduko guapoena izango, baina eskolako ume gehienak askoz itsusiagoak dira" esango balu bezala.

MIKEL AYLLON
IDAZLEA



Ahoa eta belarriak

Seguru ohartu zarela. Ez dizut gauza handirik deskubrituko. Geure buruak maitatzeko ezintasunean, geure buruak areago gorrotatzeko aurpegi gainean jartzen ditugun krema, makillaje, eguzkitako betaurreko, maskara edo mozorroen atzean, besteak beste, aho bat eta bi belarri ditugu. Barka sinplekeria, baina batzuetan gauzarik begien bistakoenak izaten dira ikusten zailenak.

Agerikoa ere bada, bidenabar, belarriak bi direla eta ahoa bakarra. Eta, beharbada, ez da kasualitatea.

Menturaz, giza eboluzioaren uneren batean, norbait ohartuko zen gainera zetorkigunaz, eta erabakiko zuen hurrengo belaunaldia-ri belarri bat gehiago jartzea, edo bigarren

"Etorri moduan joango dira, abisatu gabe, hotzak eta kanpainak"

ahoa kentzea. Ez da zaila imajinatzen zertarako: gutxiago hitz egiteko eta gehiago entzuteko.

Beti abisatu gabe heltzen den hotzarekin batera, ahoak dantzan eta belarriak erne ibiltzeko sasoi iritsi da gurera. Euskaraz gehiago hitz egin eta euskara gehiago entzutekoa. Eta etorri diren moduan joango dira, halako batean, abisatu gabe, hotzak eta kanpainak. Balioko ahal digu euskaradunoi sikiera ohartzeko zenbat belarri ditugun inguruan entzuteko prest!

Nahiz eta, barka etsia, batzuetan irudipena dut euskararen aldeko kanpainekin Sarrionandiarekin bezala gertatzen zaigula, denok nahi dugula ikusi bere argazki eder eta koloretsu bat egunkariaren azalean, baina inor gutxiri interesatzen zaiola haren liburuak irakurtzea. Zorionez, belarriak bezala, begiak ere bi ditugu, gehiago irakurtzeko.



Umeentzako ikuskizunak, kontratzioa zabalik!











945-243828

www.ttipia-kultura.com

SAREAN

#BeldurrezkoIstorioak

Azkeneko egunetan, erronka berri bat izan dute esku artean txiolariak. Beldurrezko istorio bat idazteko aukera izan dute, baldintza bakar batekin: soilik lau hitz erabilita. Kritika eta umorea eskutik, istorio beldurgarrietan. **A. AMENABAR** @anamenabar



Samara Velte @samaravelte

Ez naiz matxista, baina...



Jatsu Argarate @jatsu

Adobe Flash plugina instalatu.



Santi Leone @ororostorm

Armarik gabe, dena posible.



Jordi Jozulin @jozulin

Pixka bat es mucho.



Edurne Begiristain @ebegiristain

Tradizioak errespetatu behar dira.



Imanol Magro @lماغro

Trago bat eta etxera.

ASTEKO ARGAZKIA



Margoketak egin dituzte Podemos eta EH Bilduren Gasteizko egoitzetan; halaber, Puigdemonti mezuak utzi dizkiote Salburuko hormetan. | ALEA

HORMETAN, GIROA BERO

Kataluniako gatazka Gasteizko hormetara ere iritsi da. Asteburuan, Podemosen aurkako margoketak egin zituzten, alderdi moreak Gasteizko Manuel Iradier kalean duen egoitzan. Salburuan, halaber, mezuak idatzi

dizkiote Generalitateko presidenteari: "Puigdemont, maite zaitut", eta "Puigdemont, te quiero", margotu dute zenbait kaletako hormetan. Bestalde, EH Bilgunean, Posta kalean, "Etarras" idatzi dute.



Presoen eskubideen aldeko Sare mugimenduak prentsaurrekoa eskaini zuen asteartean, Gasteizko Zaldiaran plazan duen egoitzan. | ALEA

Gizartearen papera espetxe-politikan, Gasteizen aztergai

Sare mugimenduak jardunaldiak antolatu ditu, komunikabideez, presoen seme-alabez eta *bakearen artisauez* aritzeko

ITSASO ESTARRONA

GASTEIZ

Iaz lehen aldiz antolatuta-ko jardunaldien "harrera ona" ikusita, presoen eskubideei buruz aritzeko bigarren topaketak antolatu ditu Sare mugimenduak, azaroaren 21etik 23ra. Lehenengo bi saioak Goiur in izango dira, eta, hirugarrena, Europa jauregian.

Jendartea, espetxe-politikaren aldaketarako motorra. Hori izango da, zehazki, aurtengo jardun-

naldien leloa. Zehaztu dute-nez, egungo kartzela-politikak "giza-eskubideak urratzen ditu", eta, "hori aldatzeko, jendarteak izan dezakeen indarra sustatu" nahi dute, Blanka Martinez de San Vicente kidearen hitzetan.

Egun bakoitzean gai bana mahai-gaineratuko dute. Lehena, *Komunikabideak eta elkarbizitza agertoki berrian* (azaroak 21, asteartea). Horri buruz aritzeko, hainbat hizlari

gonbidatu dituzte: Edurne Portela, idazlea; Luis Aizpeolea, El Paiseko kazetaria; Iñaki Soto, Garako zuzendaria; eta Laura Mintegi, idazlea eta EHUko irakaslea. Dinamizazio lanetan, *Naiz.eus* atariko

kazetari Ion Telleria arituko da.

Bigarren saioan (hilak 22, asteazkena), presoen seme-alabak izango dituzte mintzagai, "modu bereziki gordinen dispersioa jasaten duten haurren egoera ezagutzeko". Horretarako, *Motxiladun umeak* dokumentala proiektatuko dute, eta ondoren solasaldia egingo dute. Lau lagun gonbidatu dituzte solas-mahaira: Kontxi Ibarreta, Izar Majarenas umearen

Azaroaren 21etik 23ra izango dira saioak, Goiur in eta Europa Jauregian

amona; Peru del Hoyo, aita espetxean hil zaiona; eta Maite Diaz de Heredia preso ohia, kartzelan ama

"Jendarteak espetxe-politikan izan dezakeen indarra sustatu nahi dugu"

BLANKA MTZ. DE SAN VICENTE
SARE MUGIMENDUKO KIDEA

izandakoa. Moderazio-lanak Belen Arrondok egingo ditu, irakaslea eta EH Bilduko biltzarkide ohia.

Bakearen artisauak

Hiritarren ekarpenean sakonduko dute azken saioan (azaroaren 23an, osteguna), honako leloari helduta: *Bakearen artisauak: gizarte zibila bakearen konponbidean*. Hauek izango dira solaskideak: Agus Hernan, Foro Sozialeko koordinatzailea; Anaiz Funosas, Bake Bidean mugimenduko presidentea; Fernando Armendariz, irakaslea eta Giza Eskubideen aldeko ekintzailea; eta Joseba Azkarraga, Sareko bozeramalea. Teresa Toda kazetari eta ekintzaileak gidatuko du solasaldia. Jardunaldietara sarrera irekia da.

WWW.ALEA.EUS

GIZARTEA



Borja Lazaroren amak parte hartu du topaketan. | QUINTAS

Desagertuen bila, eraginkorrago

Desagertze-salaketei "erantzun eraginkorragoa" emateko helburuarekin, udalerrien arteko sarea sortu dute

A. AMENABAR

GASTEIZ

Desagertu diren lagunen kasuei udalerriek "lehen momentutik" erantzuteko helburuarekin, Desagerpenekiko Udalerri Sentikorren lehen Sarearekin bat egin du Gasteizek. Tokiko ekimenak diseinatzen laguntzea eta desagertze-salaketei erantzun eraginkorragoa eta antolatuagoa ematea du helburu.

Itziar Gonzalo alkateordeak eman du erabakiaren berri, desagertutakoen inguruan Andaluzean antolatutakoa

topaketa batean. Hiri desberdinetan izandako esperientziak batu eta desagertzei, tokian tokiko erakundeetatik, aurre egiteko hainbat ekimen proposatu dituzte bertan.

Borja Lazaroren desagerteta izan du gogoan Gonzalok, Gasteizko Udalarentzat "inflexio-puntu" bat izan dena. Ordutik, "hausnarketa egin" eta hainbat ekimen martxan jarri direla gogoratu du. Jardunaldiotan emandako datuen arabera, Espainian 4.164 lagunek desagertuta jarraitzen dute.

ELKARTASUNA

Hilaren amaiera arte jasoko dituzte Azoka Txikirako jostailuak

A. AMENABAR

GASTEIZ

Jostailuek bigarren aukera bat izan dezaketela erakutsiko du, hamargarren urtez, Azoka Txikiak. Egoera onean daudenak bildu, eta berriz salduko dituzte abenduaren 16an Iradier Arenan paratuko dituzten sal-tokietan.

Bildutako dirua Save The Children gobernuz kanpoko erakundeak kudeatuko duen proiektu batera bideratuko dute, aurretik hainbat ikastetxetan landuko dutena. Lehen Hezkuntzako haurrak "errealitate desberdin batera" gerturatzea du helburu egitasmoak, Udaletik azaldu dutenez. Hain zuzen, beren herrialdeetatik atera behar izan duten haur eta familia errefuxiatuen egoera ezagutuko dute.

Azoka bitartean, azaroaren 30era arteko epea izango dute gasteiztarrek hiriko ludo-klubetan eta ikastetxetan jostailuak uzteko.



ERROTA
HORTZ KLINIKA
CLINICA DENTAL

Julián de Apraiz, 1 • 01012 VITORIA-GASTEIZ



Tubos Reunidoseko langile bat, fabrikaren sarrerako zubitik trenbidera begira. | AIARALDEA ATARIA

Kolokan dago eskualdeko industria sektoreko hainbat langileren etorkizuna

Hartzekoduden lehiaketan daude Artziniegako CEL eta Laudioko Gometegui enpresak

TXABI ALVARADO

LAUDIO

Egoera nahasia bizi dute eskualdeko hainbat enpresatan. Ehunka beharginen lanpostuak daude jokoan, eta ziurgabetasun handia dago oro har.

Argi ikus daiteke hori Tubos Reunidosen kasuan. Hainbat neurri iragarri ditu enpresako zuzendaritzak, 300 milioi euro baino gehiagoko zorra murrizteko. Enpresa batzordeko kideek salatu dute enplegua suntsitzea dela administrazio kontseiluaren plana. Joan den astelehenean bildu ziren zuzendaritza eta langileen ordezkariak, eta azken hauek ez ziren pozik atera bileratik. "Tramite hutsa

izan zen, erabakiak hartuak dituzte jada", adierazi dute beharginek, eta nabarmendu dute 30 lanpostu suntsitu dituztela jada.

Hala ere, askoz jende gehiago dago lanik gabe geratzeko arriskuan, sindikatuetakoa ordezkarien ustetan. "170 pertsona daude aldi baterako langile gisa. Ezingo dituzte guztiak kolpe bakarrean bota, baina enpresaren asmoa da 20-30 inguru soilik geratzea. Gainontzekoak lanik gabe utziko dituzte, gurekin zazpi urte ikasten eta prestaketa jasotzen egon eta gero".

Postu finko gabeko beste 60-70 pertsona ere botako dituztela aurreikusten

du langile batzordeak. "Azpi-kontratutako hainbat zerbitzuetako (garbiketa, adibidez) arduradunak kaleratuko dituzte. Enpresa barruko langileek euren gain hartu beharko dituzte lan horiek".

"Kudeaketa txarra"

Petrolioaren krisia da, zuzendaritzaren aburuz, enpresaren egoera txarren kausa. Baina arrazoi nagusia beste bat dela uste dute langileen ordezkariak: zuzendaritzaren kudeaketa kaltegarria. Administrazio kontseiluak azken urteetan eginiko hainbat ekintza aipatu dituzte: 2007. urtean 170 milioi euroko mailegua eskatu zuten akziodunen

artean banatzeko. Almesa enpresa 25 milioi euroren-gatik erosi zuten 2010ean, aurtan 2,7 milioi euroren truke saltzeko.

CEL eta Gometegui

Tubos Reunidos ez da arazo zirimola batean murgilduta dagoen bakarra. Larria da baita ere Artziniegako Cel Technologies & Systems paper fabrikaren egoera. Lantegiaren zati bat hartzekodunen lehiaketan dago, enpresak Gueñes eta Zallan dituen instalazioekin batera.

Hartzekodunen lehiaketan dago baita ere Gometegui. Banketxeekin 13 milioi euroko zorra dauka, eta arazo larriak ditu finantzaketa lortzeko. Bere bi bezero nagusienak zirenek utzi egin diote eskarrek egiteari, eta enpresak geroz eta zailagoa du kreditua eskuratzea, Banco Popularren bidez lortzen baitzuen finantzaketa gehiena, eta banku hori ere hartzekodunen lehiaketan dago gaur egun.

OSORIK: AIARALDEA.EUS

AIARALDEA GAUR



Garraio publiko eskaintza "duina" bermatzeko eskatu dute; adineko herritarrek, besteak beste, ez dute joan-etorrietarako aukerarik. | ALEA

Elosun, garraio aukera eske

Taxi zerbitzuak behar bezala erantzuten ez duela eta, "neurriak" eskatu dizkiote Arabako Foru Aldundiari herritarrek

ANAKOZ AMENABAR

ELOSU

Garraio zerbitzuari dago-kionez, "baztertuta" daude Elosun. Hala jaso du bertako herri-batzarrak gutun batean, herritar ugariaren kexak bilduta. Erakundeek "ahaztuta" dituztela salatu eta neurriak hartzeko eskatu dute.

Elosun gero eta edadetu gehiago dituztela azaldu dute, horrek garraio propioa izateko dituen zailtasunekin, zerbitzurik gabeko herri batean. Edozein jarduera egiteko udal-erri burura –Legutiora– joan behar dute, baina horretarako ez dute garraio publiko zerbitzurik. Taxi zerbitzu bat baino ez da, 24 ordu aurretik eskatu behar dutena, soilik medikuarenera joan edo Legution beste autobusa hartu behar dutenerako. "Hori teoria da, jasotako

kexek erakusten dutelako zerbitzu horrek ez duela behar bezala erantzuten". Taxi horrek askotan herritarren telefono deiak erantzun ere ez dituela egiten aipatu dute, eta beste irtenbide batzuk bilatu behar izaten dituztela. "Esperientziak erakutsi digu ez duela funtzionatzen, eta herritarren elkartasunari

esker konpondu behar izan ditugu joan-etorriak".

Taxi zerbitzuarekin, gainera, Legutioko Udalean gestio txikiak egin edota antolatzen diren kultur ekitaldietara gerturatzeko aukerarik ez dutela azaldu dute. "Paradoxikoa da albo-herrian antolatutako kultur ekitaldira joan ezin izatea, eta, aldiz, Gastei-

zera joateko aukera ematea, Legution autobusa hartuta".

Egoera horren aurrean, "neurriak" eskatu dituzte. "Etengabe ari gara entzuten hedabideetan Araban garraio publiko sarea bikaina dela, eta gu baztertuta sentitzen gara". Elosutik gertu dauden Zestafek edota Akostak, esaterako, autobus zerbitzua dutela gogoratu dute –egunean zazpi joan-etorri dituzte– eta Elosu ibilbide horretara batzea posible izan daitekeela uste dute. "Eta azalpenik eman gabe, gainera, medikuarenera doazen, erosketak egitera edota euskara eskoletara". Inguruko herrietara hel-tzen den autobusak ere Elosun geldialdia egitea proposatu dute herritarrek, eskolako autobusak egu-nero egiten duen bide beretik, Ollerietatik.



Legutioko eskolara joateko, autobusa hartzen dute Elosun. | ALEA



Ezohiko udal batzarra egingo dute larunbatean, indarkeria matxistarik gabeko udalerrria dela adierazteko. | ALEA

"Indarkeria matxistarik gabeko udalerrri" izendatuko dute Zalduondo

Herriko gazteek egindako lanketaren ondorioz jarri dute proposamena mahai gainean

SAIOA FDEZ. DE ARANGUIZ
ZALDUONDO

Zalduondoko gazteek indarkeria matxistaren aurka ekimena jarri zuten abian duela hilabete batzuk. Lanketaren ondorioz, besteak beste, sinadura bilketa martxan jarri zuten, eta guztira, 200 lagun inguru atxikitu dira gaz-

teek proposatutako manifestura.

Horren arabera, Zalduondoko Udalari ere konpromisoa eskatu diote gazteek. Zehazki, indarkeria matxistari aurre egiteko manifestua bere egitea eskatzeaz gain, Zalduondo indarkeria matxistaren kontrako udalerrri

izendatzea proposatu dute. Eta, era berean, Udalak antolatzen dituen ekintzetan konpromisoak betetzen direla ziurtatzea nahi dute.

Udal batzarra

Datorren larunbatean, hilaren 18an, ezohiko udal batzarra egingo dute herrian, 11:30ean, propo-

samena bozkatzeko. Herriko alkate Gustavo Fernandez Villatek Zalduondoko ekimenarekin "erabat" bat egiten duela adierazi du, ohar baten bidez, eta udal batzarrean parte hartzeko gonbita egin die herritarrei. "Aurrekaririk gabeko" ekimena dela esan du alkateak: "Gure udalerriko gazteriaren kontzientziazio eta konpromiso maila islatzen duena".

Batzarraren ostean, Zalduondoko zinegotziak eta auzokideak, kalejiran, herriko sarreretara abiatzeko deia egin dute; bisitariak indarkeria matxistarik gabeko udalerrian sartzen ari direla iragaritzen duten seinaleak jarriko dituzte.





Tximeletak W-zuria izena du hegoan "w" itxurako irudi zuri bat daramalako. | AÑANA TURISMO

Zumarrak landatuko dituzte Valderejon, W-zuria tximeleta laguntzeko

Zumarren loreak behar ditu tximeletak elikatzeko, eta zuhaitz horiek desagertzen ari dira

ESTITXU UGARTE LZ. DE ARKAUTE

LALASTRA

Onddo batek eragindako gaitzak jota –zumarraren grafiosia–, zuhaitz horiek desagertzen ari dira Europa osoan, eta horrek W-zuria izeneko tximeletari eragiten dio, zumarren loreak behar dituelako elikatzeko. Valderejoko parke naturalak eta Arabako Foru Aldundiak espezie hori babesteko eta berreskuratzeko proiektu bat martxan jarri nahi dute, Zerynthia elkartearekin batera.

Hala, azaroaren 19an zumarrak landatuko dituzte Valderejon. Ekintza herritar guztiei zuzenduta dago. Lalastran dagoen Parketxean hasiko dira, 11:00etan, eta hiru ordu

eta erdi inguruko iraupe-na izango du. Zerynthia elkartearen eskutik, proiektu hau zertan datzan azaldu ondoren, tximeleta honen biziraupenerako beharrezkoak diren zumarren landaketa bat egingo dute. Zumar hauek grafiosiarekiko erresistenteak diren aleak dira.

Jarduera hau erabat doakoa da baina kontuan izan behar da parte-hartzaile kopurua mugatua dela eta beharrezkoa dela aurretik izena ematea.

Zerynthia elkarteko kideek adierazi dute aipatu tximeleta espezie hori ez dela desagertu Euskal Herrian, baina "oso populazio txikia" dagoela. Araban, iragan apirillean 70 zumar hostotxiki landatu

zituzten Armentiako basoan. Eta Gipuzkoan, Bizkaian eta Nafarroan ere izan dira halako ekimenak.

Tximeletak W-zuria izena hartzen du hegoetan "w" itxurako irudi zuri bat daramalako. Adituek kontatu dutenez, ekainetik aurrera egin ohi du hegan. "Basoko tximeleta da, zuhaitzen gainaldean egiten duelako hegan eta oso gutxi jaisten delako landereetara. Hori dela-eta, oso zaila izaten da tximeleta ikustea".

Naturan dauden espezieen bioaniztasuna mantentzea "oso garrantzitsua" dela nabarmendu dute, "eta espezie baten galerak beste espezieengan eragin negatiboa du".

Añanako ureztapena aztertzeko, jardunaldiak

E.U.LZ DE ARKAUTE

GASTEIZ

Arabako Kontzejuen Elkarteak jardunaldiak antolatu ditu larunbatean, hilaren 18an, Gasteizko Artium museoa, lurzorua eta uraren kudeaketari buruz hitz egiteko, eta bereziki, Arabako haranak ureztatzeko martxan dagoen Barrongo urtegiaren egitasmoaren inguruan hausnarketa egiteko. Goizeko 09:30ean hasiko dira hitzaldiak, eta arratsaldean izango da mahai-ingurua.

Jardunaldietan izango dira gai honetan adituak diren unibertsitate irakasleak (Iñaki Antigüedad, Pedro Arrojo), Arabako Foru Aldundiko ordezkariak (Maria Asuncion Quintana Nekazaritzako zuzendaria eta Eduardo Aginako Nekazaritza diputatua) eta baita beste arloetako lagunak ere (Peio Urrutia botanikaria, Andres Illana Ekologistak Martxan taldeko kidea eta Javier Torre UAGAko lehendakaria).

Barrongo urtegia

Goizeko saioan aditu eta erakundeetako ordezkariak parte hartuko dute. Arratsaldean, berriz, Barron eta Atiaga herrien artean eraiki nahi duten urtegiaren proiektuari buruz azken hilabeteetan FNCA elkarteak egin duen parte-hartze prozesuaren behin betiko emaitzak aurkeztu eta eztabaidatuko dituzte.



Maeztuko gurasoen elkartetik urteak daramatzate elikagaien kalitatea hobetu nahian. | ALEA

Eskola jantokien ereduak aztertuko dituzte Maeztun

Mendialdeko herri eskoletako gurasoen elkarteek jardunaldiak antolatu dituzte larunbatean

ESTITXU UGARTE LZ. DE ARKAUTE

MAEZTU

Kuadrillako eskoletako jantokietan seme-alabek hartzen dituzten jakien inguruan hausnartu nahi duten lagunek hitzordua dute larunbat honetan Maeztuko udaletxean,

11:00etan. "Beste jantoki eredu bat posible da. Gure lurretatik gure eskoletara" izeneko jardunaldiak antolatu dituzte Maeztuko eta Kanpezuko eskoletako gurasoen elkarteek eta bi udalek. Solasaldian parte hartuko dute Eneko Viñue-

la Gure Platera Gure Aukera ekimeneko koordinatzaileak eta Dabid Zelaia Gernikako Allende Salazar eskolako gurasoen elkarteko kideak.

Jardunaldien antolatzatzaileek azaldu dutenez, Maeztuko herri eskolan

73 haur daude, haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzan. Jantokiak sukaldea dauka eta egunero enpresa batek 51 menu zerbitzatzen ditu. Maeztuko gurasoen elkartetik urteak daramatzate beraien seme-alabek jaten dituzten elikagaien kalitatea hobetu nahian.

Kanpezuko eskolan ere jantokia eta sukaldea daukate. Bertako eskolara 179 haur doaz eta 160 menu zerbitzatzen dituzte egunero. Bertako gurasoek ere ardura bera daukate.

Bertoko elikagaiak

Gurasoen elkarte biak gai honen inguruko sentsibilizazio lanetan elkar lanean jarri dira (Gernikako eskolako jantokia eredutzat hartuta), eta manifestu bat sinatu nahi dute beraien seme-alaben elikaduraren kontrola berreskuratu ahal izateko.

Arraia-Maeztuko Udalak mozio bat onartu zuen udalerriko jantoki desberdinetan ere bertoko eta elikagai ekologikoak sartzeko aukera ikertzeko. Orain dela gutxi, Kanpezuko Udalak ere antzeko mozio bat onartu zuen elikagaien inguruan.

ALGUAIRE HERRIARI, OMENALDIA

Iragan igandean ospatu zen Kanpezuko San Martin azokaren barruan Alguaire herri katalanarekin elkertasuna adierazteko ekimena egin zuen Kanpezuko Udalak. Kanpezuko Bujanda herria eta Alguaire aspaldi daude senidetuta.



Omenaldia egin diete Kanpezun Alguaire herriko zinegotziei. | @KAIXOKANPEZU

Trebiñuk ezingo du zerga-bilketa Arabarekin egin

Gaztela eta Leongo Juntak errekurritu zuen Udalaren asmoa, eta arrazoia eman dio epategiak

ESTITXU UGARTE LZ. DE ARKAUTE

TREBIÑU

Burgosko Epaitegiak bertan behera utzi du Trebiñuko Udalak Arabarekin zerga-bilketa egiteko zuen asmoa. Auzitegiaren erabakia errespetatzearen alde egin dute Elena Ramirez alkateak eta hiru zinegotzik, eta beste bi abstenitu egin dira. Beraz, auzitegiaren erabakia onartu eta atzera egingo du Udalak.

Alkateak adierazi duenez, auzitegiaren ebazpena ez betetzeak ekar dezakeen zigorra kontuan



Trebiñuko zerga-bilketan ezingo du Arabak lagundu. | PHOTOK

hartu dute erabakia hartzeko orduan; hain zuen, edozein kargu publiko hartzeko sei hilabete eta

bi urte arteko erabateko gaitasungabetzea.

Arabako Diputazioarekin zerga-bilketa egite-

ko erabakia hartu zuen Trebiñuko Udalbatzak 2015. urteko abenduan, eta berehala jo zuen Gaztela eta Leongo Juntak Burgosko Auzitegira. Erabakia errekurritu zuen bere eskumenak "inbaditzen" zituelako.

Orain, Burgosko Probintzia Auzitegiak arrazoia eman dio Gaztela eta Leongo Juntari, eta Trebiñuko Udala behartu du atzera egitera. Epaia arabera, "dagoen erkidego autonomoarekin ez den beste erkidego batekin hitzarmenak sinatzeko eskumenik" ez du Udalak. Halaber, gogoratu du udalen arteko harremanak leialtasunean eta elkarren arteko informazioan oinarrituta egon behar direla, baita koordinazioan eta kolaborazioan ere, bereziki kokatuta dauden erkidego autonomoarekin.

BERTSOLARI
TXAPELKETA
NAGUSIA
2017

Finalaurrekoak 2. itzulia
AMURRIO

Azaroak 19, 17:00. Bañueta kiroldegia

Azolatzailea

Laguntzailea



ALEA

bertsozale.eus



Arabar Errioxa Irratian aritzen dira Juantxu Martinez, Itziar Galparsoro eta Estibaliz Saenz, aldizkarian lan egitearekin batera. | BERBERANA

Mende laurdena bete du Berberana aldizkariak, eskualdea hitzez josten

1992ko azaroan atera zuten zero zenbakia, eskualdeko herri guztiak batzeko xedearekin

ESTI LANAO

GUARDIA

Berberana aldizkariko zuzendari Juantxu Martinezek dioen moduan, hilabetekaria "irradiaren alaba" da, eta horrek atzera begiratzea eramaten gaitu. Duela ia 30 urte, Arabako Errioxako Kua-drillak eskualde osorako irriati bat sortzea erabaki zuten, Arabako gainontzeko irriatiak ez baitziren bertara iristen. Hala, Radio Vitoriarekin adostu eta *Radio Vitoria, la voz de Rioja Alavesa* sortu zuten, egungo Arabar Errioxa Irratia.

Hala ere, paperezko hedabide baten beharra zegoela konturatu ziren eskualdekoak. Orduan,

Guardiako Udaleko ordezkari Agustin Irazuk aldizkaria egiteko proposamena luzatu zuen.

Ordutik, mende laurdena igaro da, baina aldizkariak hasieratik zuen oinarriko egitura mantendu du. Honetan, biztanleriaren arabera hautatutako lau udalerrri nabarmentzen dira aldizkarian, hileroko artikulua nagusiak dituztenak: Oion, Guardia, Bastida eta Eltziego. Horiakin batera, ostegunero eta alfabetikoki aukeratutako udalerrien inguruko artikulua batek osatzen du hilabetekaria.

Horrez gain, gaurkotasuna duten gai kulturalak jorratzen saiatzen dira normalean, herri txikie-

netan gertatzen diren albistei arreta berezia jarritz. Eta helburu horrekin, Arabako Errioxako herri guztiei informazioa helarazteko xedearekin, sortu zuten duela 25 urte Berberana aldizkaria. 1992ko azaroan ikusi zuen argia hilabetekariak, eta ordutik eduki historiko-kulturalak landu ditu.

Ospakizun moduan, azken mende laurdenean argitaratutako zenbait gai berreskuratuko dituzte. Tartean, orduko mahats

Eskualdeko udalerrien arteko lokarria bilakatu da aldizkaria

-bilketa, eskualdeko kultura eta gizartearen egoera eta heziketa-zentroak izan dira hizpide urte osoan zehar idatzitako artikuluetan.


Herritarrengandik gertu

"Udaletxeen aldizkaria" dela dio Martinezek. Herrien ahotsa. Horregatik, ahalik eta lagun kopuru handienara heltzea ezinbestekoa dela diote. Bost mila ale banatzen dituzte edizio bakoitzeko.

Irakurle bezain beste iritzi daude, eta pluraltasun horren lekuko izan nahi du aldizkariak, kazetariak azaldu moduan. Hilabetero editoriala idazten du Martinezek, baina haren ahotsa baino "herriarena" izan nahi duela dio, eta horretan egiten dute ahalegina: "Geurea baino, entzuten dugunaren ahotsa izan nahi dugu, eta gaietan ere aniztasun hori erakutsi nahi dugu". Internetak eta digitalizazioak, gainera, "berehalakotasuna" eta "herritarrekiko gertutasuna" areagotu dutela azaldu dute, etorkizunera begira dituzten erronkei heltzeko prest.

BERNAOLA FESTIVAL 2017

AZAROA-ABENDUA
XIV. EDIZIOA
 NOVIEMBRE-DICIEMBRE



AZAROA
4 ENSEMBLE SINKRO
19:30h. Museo ARITUM Música. Sala Este Alta / Etxaldeko Gai Artea

NOVIEMBRE

AZAROA
9 ARÁ DUO
20:00h. Conservatorio de Música Jesús Guridi Música Romántica

NOVIEMBRE

AZAROA
11 AKUSMA
19:00h. Conservatorio de Música Jesús Guridi Música Romántica

NOVIEMBRE

AZAROA
12 ENSEMBLE SINKRO
19:00h. Artea (Gai Artea) (P&A)

NOVIEMBRE

AZAROA
16 TRIO SALZEDO
20:00h. Conservatorio de Música Jesús Guridi Música Romántica

NOVIEMBRE

AZAROA
17 MALA KLINE & Co
20:00h. Museo ARITUM Música. Sala Este Alta / Etxaldeko Gai Artea

NOVIEMBRE

AZAROA
18 FRÉDÉRIQUE CAMBRELING
20:00h. Museo ARITUM Música. Sala Este Alta / Etxaldeko Gai Artea

NOVIEMBRE

AZAROA
19 ENDURING FREEDOM
20:00h. Museo ARITUM Música. Sala Este Alta / Etxaldeko Gai Artea

NOVIEMBRE

AZAROA
23 ALFONSO GÓMEZ
20:30h. Conservatorio de Música Jesús Guridi Música Romántica

NOVIEMBRE

AZAROA
25 ENSEMBLE SINKRO
19:30h. Conservatorio de Música Jesús Guridi Música Romántica

NOVIEMBRE

AZAROA
30 GURIDI GARAIKIDEA
19:30h. Conservatorio de Música Jesús Guridi Música Romántica

NOVIEMBRE

ABENDUA
2 ENSEMBLE D'ARTS
19:30h. Conservatorio de Música Jesús Guridi Música Romántica

DICIEMBRE





Urtarrilean izan zen gazte euskaltzaleen lehenengo topaketa; 60 lagun inguru elkartu ziren euskararen egoera hobetzeko asmoz. | EUSKALTZALEEN TOPAGUNEAN

Gazteak, soinez soin

Arabako gazte euskaltzaleen bigarren topaketa egingo dute azaroaren 18an (larunbata), goizean goizetik Oihaneder Euskararen Etxean; jarraian, kalejira, bazkaria eta kontzertuak antolatuta dituzte Sumendi espazioan. **ESTI LANAO** GASTEIZ

Aurreko urteko ereduari jarraituz, bigarrenaz antolatuko dute Arabako gazte euskaltzaleen topaketa. Azaroaren 18an elkartuko dira lurraldeko kuadrilletako gazteak, Oihaneder Euskararen Etxean.

Hitzordua 09:30ean hasiko da. Goiz osoan zehar, euskararen aldeko hainbat dinamika egingo dituzte, eta, ondoren, "argazki masiboa" egingo dute. Eguerdiko aldera, Judimendiko Sumendi espazio okupatura abiatuko dira kalejira, bertsoz girotutako bazkariak gozatzeko. Arratsaldeko bostetatik aurrera, zenbait artistek girotuko dute topaketa-eguna; tartean, bakarrizketa

eskainiko du Ane Gebara ipuin-kontalariak, eta Erein musika-taldea igoko da oholtzara.

Araba osoko gazte euskaltzaleentzat topagune bat sortzeko asmoz ekin zioten bideari iaz, antolatzaileek adierazi dutenez: "Ezinbestekotzat jotzen genuen sare bat sortu genuen,

"Arabar, gazte eta euskaltzale sentitzen den oro elkartzeko aitzakia da larunbateko topaketa"

HAIZEA ALONSO
MENDIALDEKO EUSKALTZALEA

elkar elikatzeko, elkarren eredu izateko, elkarri hazten laguntzeko, elkarrekin borrokatzen jarraitzeko".

Hala, lehenengo topaketa horretan 60 gazte inguru elkartu ziren, Arabako kuadrilla ia guztietatik gerturatutakoak. Aurten ere "harre-ra ona" espero dute antolatzaileek, eta gazteen artean sortzen diren loturei jarraikortasuna eman nahi diete. Haizea Alonso Mendialdeko gazteak adierazi duenez, "topaketa euskaltzaleok elkartu eta euskaraz gozatzeko aitzakia da".

Gazte euskaltzale orori irekia
Aurreko urteko topaketaren lehen-tasuna parte-hartzaileen artean

"lazko topaketan taldea ezagutzeaz arduratu ginen gehiago; aurten, elkartzeko dinamikak egingo ditugu"

AROA ARRIZUBIETA
GASTEIZKO EUSKALTZALEA

ezagutzea izan zen; aurten, haratago joan nahi dute, Aroa Arrizubietak gasteiztarrek zehaztu duenez: "Aurten, gure artean elkartzeko dinamikak egingo ditugu". Horretarako, besteak beste, kuadrilletan martxan dauden proiektuak aurkeztuko dituzte, norberak ezagutu eta parte hartu ahal izateko.

Arabar, gazte eta euskaltzale sentitzen den orori luzatu diote gonbidapena; ez soilik bertakoei, baizik eta Arabara bizitzera etorri eta gure hizkuntzan interesa duen edonori: "Azken finean, euskara bultzatzea da helburu nagusi-entzarikoa; beraz, edonork lagundu dezake horretan".

ENTZUN ELKARRIZKETA: ALEA.EUS

'11 Egun euskaraz' aurkeztuko dute

Azaroaren 23an (ostirala), 19:00etan, *11 Egun euskaraz* egitasmoa aurkeztuko du Euskaltzaleen Topaguneak. Hain zuzen, azaroaren 23tik abenduaren 3ra Euskal Herri osoan burutu nahi duten proiektua da, euskaraz ulertzen duten herritarren aktibazioa bilatzeko, bakoitzaren gaitasunaren arabera. Xede horrekin, herritarrek eta udaletako ordezkariak osatutako dinamizazio-batzordeak antolatzen ari dira eskualde guztietan; haien arteko elkarlana piztu eta, modu horretan, euskararen erabilpena sustatzeko. Batzorde horietako biren ordezkariak (Zuia eta Mendialdeakoei) elkarrizketa irekia egingo die Kike Amonarriz soziolinguista, umorista eta telebista-aurkezleak, Oihanederren.



Aroa Arrizubietak eta Haizea Alonso gazte topaketaren inguruan mintzatu ziren AleaFMn. | ALEA



ATE IREKIAK

UNIBERTSITATE GRADUAK

2017 2018

“

Lehenengo mailatik hasita, unibertsitateko bizipena eta enpresan egonaldia tartekatu ahal izan ditut.

Jon Haiz Masedo
Gasteiz, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza, 3. maila

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

ARRASATE · AZAROAK 25

LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia

GOIERRI · ABENDUAK 14

OSTEGUNA, 17:30 / Areto Nagusia

ORONA IDEO · ABENDUAK 14

OSTEGUNA, 17:30 / Areto Nagusia

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

BILBAO · AZAROAK 25

OSTEGUNA, 18:00 / Areto Nagusia

BIDASOA · ABENDUAK 2

LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

OÑATI · ABENDUAK 16

LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

ESKORIATZA · ABENDUAK 16

LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

ARETXABALETAK · ABENDUAK 16

LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA

Basque Culinary Center

DONOSTIA · ABENDUAK 16

LARUNBATA, 10:30 / Auditorium





902 110 436
www.mondragon.edu/prest

Alea, Hala Bedin ere

Hala Bedi Bi euskarazko irrati katean irratsaio bat eskainiko du aurrerantzean ARABAKO ALEAK, asteazkenero 20:00etatik 21:00etara; programan kolaboratzaile moduan parte hartzeko gonbidapena luzatu dute. **I. ESTARRONA** GASTEIZ

Araba mailako euskarazko aldizkari bakarrak, ARABAKO ALEAK, hain zuzen, irratsaio bat eskainiko du aurrerantzean lurraldeko euskarazko irrati bakarrean, Hala Bedi Bi katean, alegia (88.8 FMn, Gasteizen eta Lautadan). Uhinekin hitzordua asteazken iluntzetan izango da, 20:00etatik 21:00etara.

Ordubetean zehar, Arabako gaurkotasanarekin lotutako gaiak jorratuko ditu ALEA FM irratsaioak. Dagoeneko bi urteko ibilbidea duen programa da. Izan ere, 2016az geroztik emititzen dute Radio Vitorian, eta, aurrerantzean ere, kate publikoan entzungai egoten jarraituko du, asteartero, 17:30ean hasita. Halaber, saio guztiak www.alea.eus webgunean argitaratzen dituzte.

Hala Bedi Bat irrati elebidunak bere ekoizpeneko 34 irratsaio emitituko ditu aurten

Hamar lagun inguruk osatzen dute irratsaio lantaldea. Orain, kolaboratzaile talde hori sendotzeko lanean ari dira, eta, horri begira, parte hartzeko gonbidapena



Hamar lagunek osatzen dute ALEA FM saioko lantaldea; Radio Vitorian ere emititzen dute. | ALEA

luzatu dute. Honako helbidera idatzi dezakete interesa dutenek: irratia@alea.eus.

Arabako magazina, goizero 88.8 FMn
Joan den larunbatean aurkeztu zuen Hala Bedi irratiak ikasturte honetarako programazio berria. Zehaztu zutenek, bere ekoizpeneko 34 irratsaio ditu aurten Hala Bedi Bat kate elebidunaren parrilak. Horietatik hamar euskaraz izango dira; beste

22, gazteleraz; eta irratsaio bana eskainiko dute ingelesez eta galizieraz.

Hala Bedi Bi kateari dagokionez, Arabako euskarazko magazin bakarra eskaintzen jarraituko du goizero; hots, Araba Hizpide programa. Bestalde, umeentzako Alai Bedi saioa uhineratuko dute larunbat eta igandeetan, 10:00etatik hasita.

WWW.ALEA.EUS

Hala Bedi tabernako nobedadeak

Astelehenetik ostiralera
Eguneko platera + edaria
6€
Krepe karta berria!!

Kutxi 101 Telf: 945 26 04 11

IGOR MUÑOZ OÑEDERRA
MUSIKAZALEA

Los Hijos de la Montaña



Asteazkenean, menuak 11 euro. Larunbatean, menuak 18 euro. Ostalaritzan ohikoa da, eta arte eszenikoetan ere gertatzen da: edozein antzerki edo musika taldek astegunetan egindako lanagatik eskatzen duena ez da asteburuko *cachet*-era heltzen. Artistak prezioak negoziatzeko prestuago izaten dira aste erdian, eta horri heldu dio EHUK Arabako KulturCampus ekimenaren programazioari itxura emateko. Izan ere, murrizketek eragindako aurrekontua ez da antolatzaileak kikiltzeko adinakoa izan eta, udazken honetan, *boletus edulis* zaporetsuenez beteriko aukera dastagai izatea lortu dute.

Urriaren 25ean, bost sardexkako zizka-mizka gisa, The Limboos madrildarrek rock-erritmoen sustriatara garraiatu gintuzten; aza-

"Zapore mexikarra duen goxokia jarriko digu KulturCampusek: Los Hijos de la Montaña"

roaren 8an heldu zitzaigun itsasoz bestaldeko lehen platera, The Quiet Hollers, espektro zabal batean sailka ditzakegun soinuak eskainiz; azaroaren 15ean eskola gazte eta modernotik etorrita, era lotsagabe batean Hinds taldeak bigarren plater alaia jarri zigun mahai gainean –eskertzekoa da, gainera, rock musikan emakumeak oholtza gainean protagonista ikustea-. Hala, azaroaren 22ra heldu gara, postrearen ordura. Zapore mexikarra duen gozokia jarriko digute minganean: Los Hijos de la Montaña.

Talde txikianoak bi kide nagusi



Luz Elena Mendoza eta Sergio Mendoza dira taldekide nagusiak. | LOS HIJOS DE LA MONTAÑA

ditu: biak Mendoza, Luz Elena eta Sergio, abizen euskaldun bezain mexikarrek. Euren artean ez dago odol loturarik, izan ere, Luz Elena Portlandgoa da eta Sergio Arizonan dagoen Nogaleskoa. AEBetakoak biak, erro mexikarrez harro hitz egiten duten amerikarrak.

Luz Elena, gazte zela, Michoacango Mariachien eraginpean hasi zen abesten. Gurasoak bertakoak ziren, eta, nolabait, musikari haien haize tresnak eta abesteko erak markatu zuten neskatoa. Orain, familiaren aurreritzi katolikoak baztertu eta azala tatuaje ederrez apainduta, AEBetan barrena dabil Y La Bamba taldearekin indie-folk soinuak banatzen, arrakasta handiz gainera.

Sergio Mendoza ezagunagoa gerta dakiguke, batez ere, Calexico taldean musika tresna ugari jotzen dituen kidea delako. Abestu eta konposatzeaz gain, ondo baino hobeto jotzen ditu teklatuak, gitarra, akordeoia, ukelelea edo perkusioa. Multiinstrumentista trebea da eta partaide izan den beste talde guztietan ere erakutsi du hori; adibidez, Giant Sanden, Devotchkan edota egun eskuartearen duen Orkestra Mendoza proiektu pertsonalean.

Azaroaren 22an, 19:00etan, utzi tokia postreari. Los Hijos de la Montaña Mendi-Hotzatarrak Euskal Herriko giroa epeltzera hurbilduko baitira latin-pop, cumbia, mariachi eta rock soinu-mazedonia paregabearekin.

Norbaiti zerbait esan nahi diozu? Idatzi zure mezua www.alea.eus-en eta aldizkarian ere argitaratuko dugu.

GASTEIZ
Ainhoa Fernandez de Larrinoa
 "Estreinatuta berri duzun urteari zukua ateraiozu gaurtik hasita... beti eta edonon. Tintazko musuak eta zorionak zuretzat, neska!".



Harpidedunentzat

 ZOZKETAK

Azken irabazleak:

'Los visitantes' antzezlan: Gustavo Ceballos Najera (Gasteiz).

Amurrioko finalaurrekoa: Olga Agirre Gainzarain (Gasteiz) eta Marina Aguayo Angulo (Gasteiz).

Zozketa irekia:

Bertsolari txapelketa nagusiko finala

Irailaren 12an abiatu ondoren, finalera iritsiko da Euskal Herriko bertsolari txapelketa **abenduaren 17an (igandea)**. Barakaldoko BEC erakustazokan izango da saioa, 09:00etan hasi eta arratsaldera arte. ALEAK **bi sarrera bikoitz** zozkatuko ditu. Parte hartzeko, eman izena azaroaren 27a baino lehen. Abenduaren 1eko alean jakinaraziko ditugu irabazleen izenak.



Eman izena webgunean
www.alea.eus/zozketak




'La cantante calva' antzezlan

Gasteizko Nazioarteko Antzerki Jaialdiaren barruan, **absurdoaren antzerkia** deritzonaren lan ezagun bat eskainiko du Principal antzokiak: 'La cantante calva'. **Azaroaren 23an** izango da ikuskizuna (osteguna), 20:30ean. ALEAK sarrera bikoitz bat zozkatuko du. Eman izena zozketan azaroaren 20a baino lehen. Egun horretan bertan jakinaraziko diogu irabazleari saritua izan dela.



HITZ GEZIDUNA

	Andaluziako hiria	Kubako hiriburuko	Egur landuak
	Larunbat	Jauregia	... gabe gelditu gabe
	Itsasertzeko amildegi		
	Ozenki		
Bakea egin	Itxura ederrekoa		
*	Ez bigun		
			Potasioa
			Kaporal
Babesgarri mola			
Laborarien lanabesa			Suari dariona
		Asiako estatua	
		Idi, hitz elkarzteetan	
Japoniako hiriburua			Atzizkia
Garbizalea			Nitrogenoa

* Arabako mendia (1.029 m.)

SOLUZIOAK

HITZ GEZIDUNA

V	O	N	V	I	R	P
E	B	O	K	O	T	
K	A	I	R	A	S	E
K	A	Z	A	K	O	
K	A	G	A	G	P	A
	G	A	L	A	B	
	L	A	B	A	R	
	L	A	B	A	R	
	Z	A	P	A	T	
Z	H	M				

SUDOKUA

4	5	3	1	9	2	7	6	8
6	1	8	7	4	5	2	9	3
7	2	9	8	3	6	1	5	4
3	7	2	5	6	1	4	8	9
9	6	5	4	2	8	3	7	1
8	4	1	3	7	9	5	2	6
2	3	7	6	8	4	9	1	5
5	9	6	2	1	3	8	4	7
1	8	4	9	5	7	6	3	2

GOITIBEHERA

A	I	R	I	A	I	G	O	R	R	I	A
A	I	R	I	A	I	G	O	R	R	I	A
A	I	R	I	A	I	G	O	R	R	I	A
A	I	R	I	A	I	G	O	R	R	I	A
A	I	R	I	A	I	G	O	R	R	I	A
A	I	R	I	A	I	G	O	R	R	I	A
A	I	R	I	A	I	G	O	R	R	I	A
A	I	R	I	A	I	G	O	R	R	I	A
A	I	R	I	A	I	G	O	R	R	I	A
A	I	R	I	A	I	G	O	R	R	I	A

SUDOKUA

	8	4				6		2
5	9		2					
	3							1
	4			7	9			
9			4		8			1
			5	6				8
	2							5
					5		9	3
4		3				7	6	

Nola jokatu? 9x9-ko lauki honetako gelaxka hutsak bete behar dituzu, 1etik 9ra bitarteko zenbakiekin; zenbaki bakar bat ere ez da bi aldiz azaltzen errenkada eta zutabe berean, eta ezta dagokion 3x3-ko laukian ere.

GOITIBEHERA

1								
2								
3								
4								
5								
6								
7								
8								
9								

Nola jokatu? Goiti eta beheiti letra bat gutxiago edo gehiago du asmatu behar duzun hitzak.
1. Ipar Euskal Herrian, ispilua. **2.** Urteko bederatzigarren hilabetea. **3.** Errenkada.
4. Uhartea. **5.** Jardun. **6.** Labore mola. **7.** Egurdia.
8. Ezkertiarren gustoko kolorea. **9.** Bidalia.



ALEA

'Norantz doaz gure neguko festak?' hitzaldia
Gasteiz. Asteazkena 22, Oihanederren. Oier Araolaza dantzari eta antropologoarekin.

AZAROAK

17

AZAROAK

23

EUSKARAREN
 AGENDA

MUSIKA

Akerbeltz

Laudio. Larunbata 18, 23:30ean, Aretako kultur etxean.

Olatz Salvador

Gasteiz. Igandea 19, 19:30ean, Luis Aranburu musika eskolan.

BERTSOLARITZA

Bertxoko sariketa

Ozeta. Ostirala 17, 21:30ean, herriko elkarteetan. Manex Agirre, Aitor Najera, Asier Rubio eta Jon Ruiz de Pinedorekin.

Bertsolari Txapelketa Nagusia

Amurrio. Igandea 19, 17:00etan, Bañueta kiroldegian. Finalurrekoa.

Mursego

Gasteiz. Ostirala 17, 20:00etan, Apolo aretoan.



GAZTEZULO

HAURRAK

Kontzertu didaktikoa

Arespalditza. Ostirala 17, 19:30ean, udaletxean. Hala Dziporen eskutik. Familiek parte hartzeko kontzertua.

'Yogipuinak'

Gasteiz. Larunbata 18, 10:30ean, Lakua gizarte etxean. Maite Arrese ipuin kontalariaren eskutik.

'Richard zikoina' pelikula

Amurrio. Igandea 19, 19:30ean, Amurrio antzokian.

'Nik pirata izan nahi dut' ipuina

Gasteiz. Asteartea 21,

18:00etan, Ariznabarra gizarte etxean. 5-9 urte bitartean. Alberto Bargas ipuin kontalariaren eskutik.


'Liburutegiko sekretuak'

Gasteiz. Asteartea 21, 18:00etan, Ibaiondo gizarte etxean. 4-8 urte bitartean. Ane Gebararen eskutik.

BESTELAKOAK

Arabar Gazte Euskaltzaleen Topaketa

Gasteiz. Larunbata 18, 09:30ean, Oihaneder Euskararen Etxean. Gazteen topaketa, herri bazkaria, antzerkia eta beste hainbat sorpresa izango dira.



Euskaltzaindiaren Jagon jardunaldiak

Gasteiz. Ostirala 17, 09:30etik aurrera,

Oihaneder Euskararen Etxean. *Araba, euskaraz bidea egiten* goiburua, euskarak lurraldean bizi duen egoera aztertuko

dute. Besteak beste, euskara teknikariek, hedabideetako langileek eta euskara irakasleek parte hartuko dute.

BESTE HITZORDU BATZUK

MUSIKA

Mala Kline

Gasteiz. Ostirala 17, 20:00etan, Artiumen. *Songlines* ikuskizuna aurkeztuko dute.

Kubers & Monkey Men

Gasteiz. Ostirala 17, 20:30ean, Jimmy Jazz aretoan.

Loz Zigarros

Gasteiz. Ostirala 17, 22:00etan, Hell Dorado aretoan.

Carlos Mena eta Susana Garcia de Salazar

Araia. Larunbata 18, 18:30ean, San Pedro elizan.

Frederique Cambreling

Gasteiz. Larunbata 18, 20:00etan, Artiumen. Marine Perez eta Vincent Carinolarekin batera. Carmelo Bernaola jaialdiaren barruan.

Eguzkilore abesbatza

Betoñu. Igandea 19, 13:00etan, San Esteban elizan.

Ses

Gasteiz. Asteartea 21, 20:30ean, Parral tabernan.

Los Hijos de la Montaña

Gasteiz. Asteazkena 22, 19:00etan, EHUko unibertsitate pabilioian.

ANTZERKIA

'La tribu opaca'

Dulantzi. Ostirala 17, 19:30ean, Txema Blasco antzokian. Creanduva taldearen eskutik.

'Jokoa'

Gasteiz. Ostirala, larunbata eta igandea, 20:00etan, Baratza aretoan. Parasite kolektiboarekin.

'Los visitantes'

Gasteiz. Ostirala 17, 20:30ean, Principal antzokian. Khea Ziater konpainiaren eskutik.

BESTELAKOAK

World Press Photo

Gasteiz. Azaroaren 19a bitartean, Montehermoson. Kazetaritza-argazki erakusketa.

'Baietz harrapatu!' erakusketa

Dulantzi. Azaroaren 25era arte, kultur etxean. Lautadako buruhandi eta erraldoien inguruko erakusketa.

26
azaroa
2017

ARABAKO KONTZEJUETARAKO Hauteskundeak



Muqi zait ez!

*Zuk erabaki!
Zuk hautatu!*